

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



**CENTRO DE
INVESTIGACIÓN
MICAELA PORTILLA
IKERGUNEA**

Centro de Investigación Micaela Portilla Ikergunaea

Euskal Herriko Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzietako Ikergunaea, Micaela Portilla ikerlari arabarraren izena daramana, Giza eta Gizarte Zientzietan ikerketa zientifikoari zerbitzua emateko helburuz sortu da, Arabako campusean pisu espezifikoa duen ezagutza arloa izanik.

Micaela Portilla Ikergunaea abian jarrita ikerketaren erreferentzia bilakatuko da Euskal Herrian, arretagune izango dituen eremuetan, gaur egun ez baitago antzeko ezaugarririk biltzen duen zentrorik. Bertan, aukera izango dute diziplina zientifiko horietako bikaintasun ikertaldeek hainbat baliabide eskueran izateko –gune bereziak, laborategiak eta azpiegitura teknikoak eta giza azpiegiturak–, betiere kalitateko ikerketari ahalik eta erantzunik onena eman diezaioten.

Arabako Campusak Lascaray Ikergunaea du, Zientzia Esperimentalen eta Osasun Zientzien arloko ikerketara bideratuta dagoena, eta ikerguna berri hau abian jarrita, maila handiko ikerketa azpiegiturak izango ditu jakintzaren hainbat adarretan, inguruneko garapen ekonomiko eta kulturalarentzat lagungarri izango direnak.

Eraikin berriak hizkuntzalaritzako bi laborategi ditu (Hizketaren Pertzepzioko Laborategia eta Hizkuntzalaritza Esperimentaleko Laborategia), baita Arkeologiako hiru laborategi ere. Gainera, eremu partekatu batzuk ditu, gehienbat bilera-gelak, mintegietarako eta emaitzak aurkezteko lan-gelak (bakarkako nahiz taldeko lanerako) baita ekitaldi-areto bat ere. Gainera, ikergunaek barnean hartu ditu bai Chair on Cultural Landscapes and Heritage UNESCO Katedra bai Arabako Campuseko Master eta Doktorego Eskolaren egoitza.



Eraikinaren ezaugarriak

Micaela Portilla Ikerguneak 7.750 m²-ko azalera erabilgarria du, lau solairutan eta soto batean banatuta. Lascaray Ikergunearen ondoan dago eraikita eta lurpeko aparkaleku bat du sotoan (3.194 m²). Eraikinaren gainerakoa hainbat gune biltzen dituzten lau solairutan dago banatuta. Besteak beste, bikaintasun ikertaldeak aritzeko lokalak ditu, beste instalazio batzuen artean, baita gune balioanitzak, arkeologiako eta historiaurreko laborategi partekatuak, eta fonetika eta fonologiako, bileretarako eta bideokonferentzietarako gelez gain.



Eraikinak zenbait osagai berezi ditu, zuzkidurarako eraikuntzaren abangoardian kokatzen dutena. Osagai horietatik nabarmentzekoa da inguratzailerako osoaren itxitura estrukturala, CLT zur kontralaminatuzko panelen bidez. Zero energiako eraikin diseinua du eta hainbat osagai bioklimatiko ditu energia aurrezteko, arreta handiz aztertu direlarik eraikinaren portaera termikoa eta akustikoa.



Ikertaldeak

Gaur egun, Micaela Portilla Ikergunean, 12 ikertaldeak dihardute lanean:

PSIKOR

<http://www.psykor.es>

Ikertzaile nagusia: Arantzazu Rodríguez .

Identitate indibidualaren eta identitate sozialaren arteko loturak dira Psikor-en interesgunea, adierazle hauetan agertzen direnak: inmigranteen inplikazioa eskolarakundeetan, kirol sozializazioa, identitate soziala eta abar.

ITZULIK TRALIMA

<http://www.ehu.es/tralima/inicio.php>

Ikertzaile nagusia: Raquel Merino.

Talde honek Itzulpen eta Traslase Kulturalen ikerlanean dihardu, literaturaren eta ikus-entzunezkoen eremuetan (kultura tradizional inprimatua eta ikus-entzunezkoa) ikuspegi historiko batetik eta teknologia berriei dagozkien tresnak baliatuz (Giza Zientzia Digitalak).

Ondare Eraikiari Buruzko Ikerketa Taldea

<http://www.ehu.es/gpac/portal/>

Ikertzaile nagusia: Agustin Azkarate.

Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldeak Kultur Ondarearen Balio Katearen, eta zehatzago, Ondare Eraikiaren Balio Katearen kudeaketaren inguruan egituratzen du bere jarduna, Balio Katea Ondarearen ikerketa- eta kudeaketa-prozesuetan parte hartzen duten instantzien sekuentziazat hartuta.

Gizartea, Boterea eta Kultura (XIV-XVIII.Mendeak)

<http://www.ehu.es/es/web/sociedad-poder-cultura/home>

Ikertzaile nagusia: Jose Ramón Díaz de Durana.

Ikerketa Talde honen helburua da XIV. eta XVIII. mendeen artean gertatutako hainbat aldaketa ikertzea: ekonomikoak, sozialak, politikoak, instituzionalak, kulturalak eta ideologikoak.

Goi Erdi Aroaren eta Erdi Aro Klasikoaren Historia Konparatua

<http://www.ehu.es/en/web/lemc/home>

Ikertzaile nagusia: Francisca Tinti .

Goi Erdi Aroaren eta Erdi Aro Klasikoaren historia konparatua eta Erdi Aroko iturrien ikerketa eta edizioa.

Research Group in Heritage and Cultural Landscapes

<http://www.ehu.es/en/web/culturalheritage/home>

Ikertzaile nagusia: Juan Antonio Quirós .

Taldearen helburua da ondare arkeologikoaren ikerketan eta hedapenean Europa mailan erreferente bihurtzea, hainbat ikuspegi teoriko eta metodologikotik ondare

arkeologikoa zentzurik zabalenean hartuta, baita paisaia kulturalak aztertu, baloratu eta haien balioa nabarmentzeko prozesuetan ere erreferente bihurtzea.

Hauek dira lau ikerketa-lerro nagusiak:

- Ondare Arkeologikoa.
- Paisaia Kulturalak.
- Archaeological Sciences.
- Ondare Hezkuntza.

Euskararen Historia eta Hizkuntzalaritza Historikoa eta Gonbaratua

<http://www.ehu.es/monumenta>

Ikertzaile nagusia: Joaquin Gorrotxategi .

Teorikoki aztertzen ditu hizkuntza-aldaketaren printzipioak eta prozesuak, baita haien eragin praktikoak ere hizkuntzen eboluzioan, euskararen eta familia indoeuroparreko zenbait adarretan arreta berezia jarritz.

Ikerketa-arloak:

- Hizkuntzalaritza historikoa eta konparatua. Tipologia diakronikoa.
- Euskararen historia. Proto-euskararen berreraikuntza. Euskal testu arkaikoen edizioa.
- Hizkuntza paleohispanikoak eta hizkuntza zeltikoak. Testu paleohispanikoen edizioa.
- Hizkuntza zeltikoen, eslaviarren eta germaniarren morfologia historikoa.

ELEBILAB (Elebitasunaren Laborategia)

<http://www.ehu.es/es/web/elebilab>

Ikertzaile nagusia: María José Ezeizabarrena.

ELEBILAB ikerketa-taldearen helburu nagusia da Euskal Herriko hizkuntzak, eta bereziki euskara, eskuratu, ikasi eta irakasteari lotutako ikerketan jardutea.

Ikuspegi sozio-diskurtsibotik, euskararen eta bere inguruko hizkuntzen erabilerak aztertzen ditu, testu zehatzak, bai ahozkoak bai idatzizkoak, ikergaitzat hartuta.

Ikuspegi kognitibotik, taldearen helburua da lexikoaren eta gramatikaren garapena ikertzea, haurren eta helduen hizkuntzaren erabilerak kontuan hartuta.

Hauek dira ikerketa-arloak:

- Hizkuntzaren eskuratzea eta ikaskuntza haur elebidun eta elebakarrengan.
- Hizkuntzen irakaskuntza: estrategiak eta metodologiak.
- Hizkuntza gutxituak barneratzen dituzten eredu eleaniztunak.
- Irakasleen prestakuntza.
- Hiztun berriak.
- Hizkuntzaren nahasmenduak.

Gogo Elebiduna

<http://www.ehu.es/HEB/?lang=es>

Ikertzaile nagusia: Itziar Laka.

Hizkuntza nola adierazi eta prozesatzen den ikertzen dute; bereziki, zeintzuk diren hizkuntzaren adierazpenaren ezaugarri unibertsalak eta prozesamendua, eta zeintzuk aldatzen diren hizkuntza bakoitzaren espezifikazioen arabera.

Hauek dira ikerketa-arlo nagusiak:

- Prozesamendua.

- Hizkuntza-bariazioa eta Corpus Azterketak.
- Hizkuntzaren garapena eta irakurketa.
- Hizkuntzaren narriadura zahartze tipikoan eta atipikoan.

Language and Speech

<http://www.laslab.org>

Ikertzaile nagusia: María Pilar García Mayo.

Taldearen helburu orokorra da bigarren/hirugarren hizkuntzak eskuratzearen arloan ikerketan jardutea. Bereziki, sistema linguistiko ez natiboak eskuratzeko prozesuaren alderdien azterketan oinarritzen da ikerlana, ikuspegi teoriko desberdinetatik eta maila linguistiko desberdinak kontuan hartuta (fonologikoa, morfosintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa).

Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea

<http://hitt-linguistics.net>

Ikertzaile nagusia: Myriam Uribe-Etxebarria.

Hizkuntzaren giza gaitasuna aztertzen du ikuspegi generatibista batetik.

Hauek dira ikerketa-arlo nagusiak:

- Hizkuntzalaritzaren teoria.
- Hizkuntzalaritza formala.
- Hizkuntzaren arkitektura eta beste sistema kognitibo batzuekin duen lotura.
- Tipologia eta hizkuntzalaritza konparatiboa (bereziki nabarmenduz euskara, familia erromanikoa, germaniarra eta eslaviarra).

REWEST (Research in Western American Literature and Culture)

<http://www.ehu.eus/es/web/rewest/home>

Ikertzaile nagusia: David Rio.

Taldearen lehentasunezko helburuetako bat da gune literario erregionalak eta euren proiektzio globala aztertzea, Iparramerikako Mendebaldean arreta berezia jarritz. Gainera, helburu nagusizat hartu da Mendebaldearekiko interes kritiko berria sendotu eta bultzatzea, kalitatezko literatura heterogeneo eta kulturantzun baten gero eta iturri joriagoa bilakatzen ari baita, AEBetako muga erregionalak eta nazionalak gainditzen dituena. Arreta berezia eskainiko zaie Mendebaldeko literaturaren imajinario tradizionala berritzeko edo berrikusteko duten gaitasunagatik nabarmendu diren autoreei.

Micaela Portilla

Micaela Josefa Portilla Vitoria (Gasteiz, 1922-2005), Gasteizko Eskola Arrunteko zuzendari izan zen (1958-1964) eta Euskal Herriko Unibertsitateak Honoris Causa Doktore izendatutako aurreneko emakumea, 1993an.

Historialaria, dibulgatzailea eta ikerlaria, Maisutzako eta Filosofia eta Letretako ikasketak egin zituen. 1954an lizentziatu zen Complutense Unibertsitatean 'Torres de Mendozas, Guevaras y Ayalas de Álava' tesinarekin, bere funtsezko obretako bat izango zenaren atariko: 'Torres y casas fuertes en Álava' (1977). Zaletasun izugarria erakutsi zuen historiaren eta artearen aurrean, eta horren erakusgarri dugu bere bibliografia joria. Bere lurraldearen iragana ezagutzen eman zuen bere bizialdi osoa, eta lan emankor horrengatik hainbat sari lortu zituen, besteak beste, Vatikanoko San Gregorio Magno Ordena edo Eusko Ikaskuntzaren Manuel de Lekuona Saria. 1982az geroztik Gasteizko Alaba Kutuna da, Aiara Haraneko eta Kuartangoko Alabatzakoa, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko Merituzko Laguna eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko Ohorezko Kidea, besteren artean.

